

Txillardegi

Norvegia 1905

A

ldika Danimarkaren menpean, eta aldika Suediarenean egona, Norvegia 1905ean sortu zen erresuma askatu gisa.

1905era arte Suedia eta Norvegia batuta zeuden.


“Oslo” bera, Norvegiako hiriburua, daniarrek bataiatu zuten “Christiania”; eta 1925era arte ez zen “Oslo” izendatu, jatorrizko izena berreskuratuz.

Norvegiak bortizkeriarik gabe lortu zuen askatasuna. Hori egia da.

Suedia gogor jarri zen norvegiar “separatisten aurka”, eta erresuma batua puska ez zedin neurri politikoak eta militarrek hartu zituen.

Baina norvegiar abertzaleek Michelsen alde bat eginik, borrokarako prestatu ziren 1905ko ekainean.

Michelsenen gobernu abertzaleak erreferendum bat antolatu zuen urte bereko udan, eta gehiengo guztizkoaz irabazi zuen.



DANI BLANCO

Gertakariok nolabait “ikusteko” aski du irakurleak Grosselin-Delamarcheren *Atlas de Géographie* famatua begiratzeari (Ed. Bertaux, Paris, 1869).

Kolorezko mapaz horniturik, hor agertzen da Europa nola zegoen XIX. mende amaieran.

Mila aldiz begiratu izan ditut mapa argitsu haiek; Europa politikoa ondoko urteetan noraino aldatu zen neurtzeko.

Turkiarrek Esloveniarrainoko lurralde osoa kontrolatzen zuten: geroko Jugoslavia, Bulgaria eta abar.

Austria-Hungariako inperio zabaletik, berriz, ezer gutxi gelditu da; Austria eta Hungaria ttipituak izan ezik.

Irlanda Ingalaterrako parte agertzen da, eta kolore berean.

Suomi eta erresuma baltikoen arrastorik ez dago: dena Errusiaren menpean. Eta abar.

Itzul gaitezen gu orain Suedia eta Norvegiaren lurraldeetara. Begira deza-

Norvegiak bortizkeriarik gabe lortu zuen askatasuna. Suedia gogor jarri zen norvegiar ‘separatisten aurka’, eta Erresuma batua puska ez zedin neurri politikoak eta militarrek hartu zituen

Begira dezagun xeheki 67. mapa. Norvegia eta Suedia batuta agertzen dira, larrosa kolore bakar batez. Eta ‘Oslo’, jadanik esan dugunez, ‘Christiania’ da oraindik

Hori ikusita Suediak onartu egin zuen Norvegiaren askatasuna 1905eko urrian.

Arriskutsuak izan ziren lau hilabete haiek. Baina odolik isuri gabe gaingitu ziren.

Eta norvegiarrek beren errege propioa hautatu zuten: Haakon VII; Ingalaterrako Edward VII.en Maud alabarekin ezkondua.

Hori guztia orain dela mendebete gertatu zen; eta mundu guztiko gobernu guztiek eman zuten ontzat erresuma berria.

gun xeheki 67. mapa. Norvegia eta Suedia batuta agertzen dira, larrosa kolore bakar batez. Eta “Oslo”, jadanik esan dugunez, “Christiania” da oraindik.

Badantzut: “Aspaldiko kontuak dituk horiek”. Eta hala da.

Baina estatuen arteko mugen sakratutasuna ez da inon ageri. Ipuin hutsa da. Gaurko estatuek asmatutako ipuina da.

Noski. Espainia ez da Suedia. Ondo dakit eta dakigu.

Baina on da Europa barruko gertakari horiek gogoan hartzea! ■